Todos/as los/as participantes podrán dejar sus pertenencias en el servicio de consigna que habrá en el polideportivo.

Dutxak | Duchas

Iraetako futbol zelaian.

En el campo de fútbol de Iraeta.

Aparkalekua | Aparcamiento

Lasterketaren egunean Zestoan bertan seinalizatuta egongo den aparkalekuan autoak uztea gomendatzen dizuegu.

Recomendamos dejar los coches en el aparcamiento que se encontrará señalizado en Zestoa el día de la carrera.

INTERESGUNEEN INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE AREAS DE INTERÉS

NATUR-ONDAREA | PATRIMONIO NATURAL

**PAGOETAKO PARQUE NATURALA
PARQUE NATURAL DE PAGOETA**

Pagoetako Parke Naturalean ingurune naturalaren eta giza ingurunearen arteko oreka islatzen da. 2.860 ha-ko azalera hartzen du, zati handiena Aiako udalerraren barnean eta gainontzekoa, Zarautz eta Zestoaren artean banatzen da. Bere izena 678 m-ko altuera duen Pagoeta mendiari zor dio.

Pagoeta 1998ko irailaren 29an deklaratu zuten parke natural. Gipuzkoako Foru Aldundiak inguru horretan jabetzan dituen finka batzuetan du bere jatorria, zehazki Laurgain eta Altzolakoak, Iturrran, Agorregi eta Bekolako enklabeek gain.

Parkea ezagutzen hasteko, egokiena Iturrran Parketxera gerturatzea da. Bertan, behar bezala informatu eta laguntzen baitzaio bisitariari. Hortik aurrera, bakoitzak dituen lehenetasunen arabera, erakusketa, natura, ondare edo mendi-ibilaldien eskaintzaren artean aukeratu ahal izango du.

El Parque Natural de Pagoeta refleja el equilibrio entre el medio natural y el medio humano. Abarca una superficie de 2.860 ha, pertenecientes en su mayor parte al término municipal de Aia y, en menor medida, a los de Zarauz y Zestoa. Debe su nombre al monte Pagoeta, de 678 m de altitud, que forma parte de la cadena de montañas de la costa de Guipúzcoa.

El Parque Natural, declarado como tal el 29 de septiembre de 1998, tiene su origen en las fincas que la Diputación Foral de Gipuzkoa posee en la zona, concretamente se trata de la suma de las de Laurgain y Altzola más los enclaves de Iturrran, Agorregi y Bekola.

Para comenzar a conocer el Parque, lo más recomendable es dirigirse a Iturrran Parketxea, donde el público es debidamente informado y atendido. A partir de ahí las preferencias personales harán que el visitante se decante por la oferta museística, naturalística, patrimonial o senderista.

IZARRAITZ KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA

MACIZO DE IZARRAITZ

Izarraitz mendigune karetsua da, eta zati handi bat pagadiz estalita dago. Kareharrizko haitzebakien oineko baso misto helduen eta harizti azidofiloen eredu onak ere badaude. Pertsonen jarduerengatik -historiaurreko hondar garrantzitsuak daude-, gune irekiak sortu dira, eta nabarmenak dira zenbait larre menditar eta txilardi lehor atlantiko zein mediterraneozko azalera adierazgarri bat. Gune ireki horietan beha daitezke antzandobia, sugezalea edo zapelatz liztorjalea. Botanikaren ikuspuntutik, azpimarratzekoak dira azerimahatsa (*Paris quadrifolia*) eta anbulo gaiztoa (*Narcissus pseudonarcissus*). Gune horretako faunaren garrantzia, landazabal atlantikoaren bereizgarri diren aipatutako hegaztiaz gain, funtsean, haitzuloei loturiko kiroptero-komunitateetan datza. Oinarrizko harkaitzei loturiko landare-komunitate ugari ere badago, eta bertan interes handiko espezie franko egoten dira.

Izarraitz es un macizo calcáreo cubierto en buena parte por hayedos, encontrando también buenas representaciones de bosques mixtos de pie de cantil calizo maduros y robledales acidófilos. La actividad humana, de la que quedan restos prehistóricos relevantes, ha dado origen a espacios abiertos entre los que destacan distintos pastos montanos y una superficie significativa de brezales secos atlánticos y mediterráneos. Es en estos espacios abiertos donde es posible observar al alcaudón, la culebrera o el halcón abejero. Desde el punto de vista botánico destaca la uva de raposa (*Paris quadrifolia*) y narciso trompón (*Narcissus pseudonarcissus*). La importancia faunística de la zona, aparte de las mencionadas aves características de la campiña atlántica, reside fundamentalmente en las comunidades de quirópteros ligados a las cuevas. Alberga también una amplia representación de comunidades vegetales ligadas a rocas básicas, donde se hallan muchas de las especies de interés relevante.



Pagoeta



Izarraitz

XX

• IZENA: Astigarraga.

• KRONOLOGIA: 22.000-20.000 urte.

• ESALDI ESANGURATSUA:
Milaka urteetan zehar erabilitako ehiza eta erritual guinea.

• DATU NABARMENENAK:
Debako udalerrian aurkitzen den haitzulo xarmanta, Azkoitiko Munibe Arkeologia Taldeko kideek aurkitu zuten 1967an eta 2005etik ari dira bertan induskatzen. 2006an gutxienaz 22.000 eta 20.000 urte bitartean dituzten arte adierazpenak aurkitu ziren, Solutre aldikoak.

Irudiak aztarnategi arkeologikoaren inguruan daude, sarreratik nahiko hurbil, baina egun argitatik gordeta.

Gutxienaz 16 marra pare paralelo aurkitu dira, zaldi bat izan daitekeen orban beltz bat eta giza jatorrikoak diren edo ez zalantzak sortzen dituzten marka batzuk ere bai. Arte "ekarpen" garaikideak ere baditu.

Marra paralelo gorriak "horma ukitze" erritualekin lotuak izan dira, kultura askotan ohikoa da atzamar margotuekin hormak ukitzea naturaz gaindiko indarrekin harremanetan jartzeko.

Harkaitzen arrakaletan gizakiak propio jarritako animalia hezurak aurkitu dira, agian nolabaiteko erritualeen baten seinale.

Behe Paleolito, Erdi Paleolito, Goi Paleolitoaren azken fase, Epipaleolito eta Brontze Aroko okupazio aztarnak aurkitu dira bertako aztarnategi arkeologikoan, beraz, denbora tarte oso zabal batean zehar erabilera izan duen kobazuloa da. Paleolitoan zehar noizbehinkako babeslekua izan zen, agian erritualetarako lekua, Brontze Aroan ehorzketa leku bihurtu zen.

Kobazulo honi loturiko zenbait kondaira entzun daitezke, azken mendeetan koba abereak gordetzeko erabili izan da eta hormetako marra beltz batzuk XV. eta XVI. mendeetakoak direla frogatu da.

• DESKRIBAPENA:
400 metro inguruko garaieran aurkitzen da, mendi hegal malkar eta harritsu batean kokatzen da, hego ekialdera orientatua, Goltzibar errearen arroaren goiko partean, badirudi ehiza leku espezializatu bat zela Goi Paleolitoan.
Gaur egun sarrera astigar zuhaitzez inguratua dago, posible da garai batean haitzuloak beste sarrera bat ere izatea eta hau gar egun harri-jauzi batek itxita egotea.

Sarrera estu batetik igaro ondoren, koba beherantz garatzen da, gizakien bizilekua izandako guinea ezkerreko hormaren kontra kokatzen da.
Aztarnategi arkeologikoaren aurrean areto nahiko zabal bat dago, aurrera jarraituz berriz, galeria malkar bat aurkitzen da, bere bukaeran ur putzu batekin.

• NOMBRE: Astigarraga.

• CRONOLOGIA: 22.000-20.000 años.

• FRASE SIGNIFICATIVA:
Un refugio de caza y lugar ritual utilizado durante miles de años.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:
Esta preciosa cueva que se encuentra en el municipio de Deba fue descubierta por miembros de la Sociedad de Arqueología Munibe de Azkoitia en el año 1967 y desde el 2005 se están llevando a cabo excavaciones. En el año 2006 se encontraron expresiones artísticas de al menos 20.000 años de antigüedad, pertenecientes al Solutrense. Las imágenes se encuentran alrededor del yacimiento arqueológico, bastante cerca de la entrada, pero donde no llega la luz del sol.



Se han encontrado al menos 16 pares de líneas paralelas, una mancha negra que podría ser un caballo y otras marcas negras en las que no está claro si tienen origen antrópico. Las líneas rojas paralelas han sido relacionadas con rituales de "tocamientos de pared", en algunas culturas es usual tocar las paredes con dedos mojados en pintura para ponerse en contacto con fuerzas sobrenaturales. En grietas de la roca se han encontrado huesos de animales que fueron puestos adrede, tal vez parte de algún ritual.
En el yacimiento arqueológico se han encontrado restos del Paleolítico inferior, medio y superior, el Epipaleolítico y la Edad de Bronce, por lo tanto es una cueva que ha sido utilizada durante un período muy prolongado de tiempo.

• DESCRIPCIÓN:

Se encuentra a 400 metros de altitud, en una ladera abrupta y rocosa orientada al sureste y elevada sobre el arroyo Goltzibar, parece ser que era un campamento de caza especializado.

Hoy en día la entrada está rodeada de arces, es posible que tiempo atrás la cueva tuviera otra entrada y que esta se encuentre cerrada debido a un derrumbe. Después se cruzar una entrada estrecha, la cueva se abre hacia abajo y la parte que fue habitada se encuentra frente a la pared izquierda.

XX

• IZENA: Amalda.

• KRONOLOGIA: 100.000-35.000 urte.

• ESALDI ESANGURATSUA:

Neandertal gizakiaren eta lehen Homo sapiensen udako ehiza lekua.

• DATU NABARMENENAK:

Altzolaras edo Granada erreka ebakitako mendi honetan giza okupazioa izan duten hainbat kobazulo daude, Amalda deitzen zaion honetan Musteriar aroko (duela 100.000-35.000 urte) aztarnak aurkitu dira, Neandertal gizakia bertara etortzen zen ehizan egitera. Kobazulo honen estratigrafia ezartzea zaila da, aldapa handia duenez, sedimentuaren zati handi batek higadura izugarria jasan duelako.

Indusketa arkeologikoak 1979 eta 1984 artean garatu ziren, sei kanpainatan zehar. Bertara iristeko, arkeologoek lokarrik baliatu behar izaten zuten.

Hainbat milaka urteko utzialdiaren ondoren, Kalkolitoko, Brontze Aroko (duela 1.800-700 urte) eta Erromatar garai berantiarreko okupazio aztarnak ere aurkitu dira.

Badirudi Erdi Paleolitoko Neandertalak eta Goi Paleolitokoaren hasierako Homo sapiensak bertara sarriok ehizatzen etortzen zirela eta udaberrian eta udan okupatzen zuten eremu bat zela. Orein arrunta, azeria, otsoa edo hartzaren aztarnak ere aurkitu dira.

Su zuloen urritasunak noizbehinkako okupazioaren teoria baieztatuko luke, horrez gain, zenbait eremutan txabola baten egiturari eusteko eginak izan ziren poste zuloak aurkitu dira, agian kobazuloaren barruan behin-behineko egiturak eraikitzen zituztenaren seinale.

Azken ikerketen arabera ordea, sarriokaren aztarnak fauna espektro osoarekiko gain ordezkaturak egon daitezke, sarriok osorik garraiatzen zituztelako kobazulora eta beste animalia batzuk jada zatituta. Animalia ustel jaleek beste animalien aztarnak garraiatzen egiten zuten lana ere kontutan hartzekoa izan daiteke.

• DESKRIBAPENA:

Errekaren mailatik 110 metro inguruko garaieran kokatzen da eta itsasoaren mailatik 205 metrotara. Ekialderantz orientatua, ahoa 14 metro inguruko zabalera eta 7 metro inguruko garaiera dituen hiruki moduko bat da, jatorrian babes ematen zion estalpearen parte handi bat galdu du harri jausien ondorioz eta estalaktitak egun argitan aurkitzen dira.

50 metro inguruko luzera du, behetik gora doazen bi galeria eta areto txiki batean antolatuta. Eremu batzuetan ezin izan da estratigrafiarik ezarri higaduraren ondorioz.

• NOMBRE: Amalda.

• CRONOLOGIA: 100.000-35.000 años.

• FRASE SIGNIFICATIVA:

Campamento de verano de caza para los neandertales y el Homo sapiens.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:

En este valle por donde fluye el arroyo conocido como Granada erreka o Altzolaras se encuentran varias cuevas que fueron habitadas en el Paleolítico. Esta cueva llamada Amalda era un lugar de caza para los neandertales del Musteriense (hace 100.000-35.000 años). Tras miles de años vacía, la cueva volvió a ser utilizada en el Calcolítico, la Edad de Bronce (1800-700AC) y el final de la era romana.

Es difícil imponer la estratigrafía de esta cueva, ya que al estar en cuesta, gran parte de los sedimentos han sufrido una gran erosión. Las excavaciones arqueológicas se llevaron a cabo entre 1979 y 1984, en seis campañas y para llegar a la cueva, los arqueólogos tuvieron que valerse de cuerdas.



Parece ser que los neandertales del Paleolítico medio y los Homo sapiens del inicio del Paleolítico superior venían a esta cueva a cazar sarrios, y habitaban la cueva en primavera y verano. Se han encontrado restos de ciervo, zorro, lobo y oso. También se han hallado restos de hogueras y de lo que podrían ser estructuras eventuales que se construían dentro de la cueva.

• DESCRIPCIÓN:

Se encuentra a 205 metros de altura a nivel del mar, a unos 110m sobre en nivel del arroyo. Se orienta al este, tiene 14 metros de ancho y 7 de alto, formando una especie de triángulo. Hoy en día debido a los derrumbes ha perdido parte de la superficie cubierta y las estalactitas se encuentran a plena luz del día.

XX

• IZENA: Praileaitz.

• KRONOLOGIA: 15.000 urte.

• ESALDI ESANGURATSUA:

15.000 urtetako zintzilikaria eta puntu gorriak, agian azti, txaman edo errituekin lotura zuen pertsona baten bizilekua.

• DATU NABARMENENAK:

Kobazuloa Debako udalerrian aurkitzen da, Deba ibaiaren harroaren gaineko eremuan, beraren eskuin aldeko magal malkartsuan.

1984an aurkitu zuten Azkoitiko Munibe Arkeologia Taldeko kideek, XXI. mendearen hasieran hainbat arte adierazpen aurkitu dira bertan, bai labar arteari dagozkionak, baita arte eramangarriari dagozkionak ere. Hasieran aurkitu zen sarrera hartaz gain, 2014ko indusketa kanpainen Neandertal gizakiak erabili zezakeen sarrera aurkitu zen eta hor beste aztarnategi arkeologiko bat aurkitzea espero da.

Martxan ari den harrobi baten eremuan aurkitzen da, bertako indusketa lanak martxan jarraitzen dute eta zeresan handia eman du.

Bertan giza espezie desberdinak bizi izan dira milaka urtetan zehar, Neandertalaren aztarnak aurkitu dira. Baina Praileaitz ezaguna egin da bertan duela 15.000 urte inguru azti bat bizi zitekeelako eta bere erritualetan erabili zitezakeen zintzilikariak eta margo gorrizko puntuak aurkitu direlako.

Goi Paleolitoan, zehazkiago Madeleine aldian, inguruko kobazuloetan jendeak ahuntzak eta oreinak ehizatzen zituzten bitartean, badirudi Praileaitzen pertsonaia berezi bat ezarri zela dirudi, zorua egokitu zen, harrizko aulki bat prestatu eta janariarentzat gordeleku bat eraiki.

• DESKRIBAPENA:

Deba ibaiaren harroaren eskuineko magal malkartsuan aurkitzen da, 50 metro inguruko altueran. Orain dela gutxira arte ezagutzen zen sarrera ipar ekialdera orientatua dago, baina badirudi hasieran uste zena baino galeria sistema konplexuagoa duela.

Garapen nahiko luzeko kobazuloa da, sarrera nahiko zabal eta argitsuarekin. Behin barrurantz eginda, pasabide oso estuak eta areto zabalak tartekatzen dira. Harri jausi garrantzitsuak gertatu dira bertan.

• NOMBRE: Praileaitz.

• CRONOLOGÍA: 15.000 años.

• FRASE SIGNIFICATIVA:

Un colgante de hace 15.000 años y puntos rojos, tal vez habitaba en ella un brujo, chamán o persona relacionada con ceremonias rituales.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:

La cueva está ubicada en el municipio de Deba, sobre el río con el mismo nombre en un terreno accidentado, fue descubierta en 1984 por miembros de la Sociedad de Arqueología Munibe. A principios del siglo XXI se han encontrado variadas expresiones artísticas, tanto de arte rupestre como de arte mueble. En el 2014 se encontró otra entrada que pudo ser utilizada por los neandertales, donde se espera encontrar otro yacimiento arqueológico. Se halla en terrenos de una cantera que se mantiene en activo, lo cual ha dado pie a muchas controversias.

En esta cueva han vivido diferentes especies humanas durante miles de años, pero Praileaitz se ha hecho famoso porque hace 15.000 años tal vez un hechicero que habitaba la cueva dejó en ella colgantes y puntos de pintura roja que se han encontrado y podrían haber sido utilizados en ceremonias rituales.



En el Paleolítico superior, más concretamente en el Magdaleniense, mientras las cuevas de al rededor se encontraban habitadas por cazadores de ciervos o cabras, esta cueva parece que fue habitada por una persona especial, al cual se le construyó una silla de piedra y un lugar donde guardar comida.

• DESCRIPCIÓN:

Elevado a unos 50 metros sobre el río Deba, hasta ahora se pensaba que la entrada estaba orientada al noreste, pero parece ser que es un sistema de galerías más complejo de lo inicialmente supuesto. Es una cueva bien larga, con una entrada amplia e iluminada, a la cual le siguen espacios bien estrechos y otros bien anchos. Se han producido importantes derrumbes en su interior.

XX

• IZENA: Danbolinzulo.

• KRONOLOGIA: 18.000 urte.

• ESALDI ESANGURATSUA:
Duela 18.000urte margoturiko ahuntz eta oreinak.

• DATU NABARMENENAK:
2014ko abenduan, Zestoako Ertxina mendian kokaturiko haitzulo txiki honetan labar artea aurkitu zen, gutxienaz duela 18.000 urte margotutako orein eta ahuntzen irudi gorriak gordetzen ditu, tanponatu teknika erabiliz eginak batzuk, orein emeatoko bat barrutik ere gorriz margotuta ageri da. Solutre aldian kokatu behar dira. Hasiera batean gutxienaz bost animalia irudi identifikatu ziren, baina ikerketak aurrera doazen neurrian, adierazpen gehiago aurkitu daitezkeela dirudi. Kobazuloa 1980an aurkitu zuten Antxieta Taldeko kideek, baina hasierako ikerketa haietan ez zen labar arterik atzeman, azalean Historiaurreko zeramika aurkitu zen arren. Azken urteetan talde horretako kideek metodologia desberdina hartu dute eta horren lehen emaitza izan zen Danbolinzuloko irudien aurkikuntza. Bizkaia mendebaldean eta Kantabria ekialdean tanponatu teknika erabiliz egindako orein emeen irudiak nahiko kopuru ugarian aurkitu dira, baina Gipuzkoan aurkitu den lehen adibidea izan da. Kanpoko elementuen ondorioz, margoak oso kaltetuak daude. Kobazuloko margo guztiak gorriak izatea ere ez da oso ohikoa. Bertan aurkitutako material arkeologikoari dagokionez, Historiaurrearen garai berrienetako zeramika aztarnak bakarrik aurkitu dira, Brontze Arokoak (duela 1.700-800 urte) izan daitezkeenak.

• DESKRIBAPENA:
Ertxina mendiaren hegalean kokatzen da, Urola ibaiaren arroaren gainetik 400 metro inguruko altueran eta Osinbeltz harrobitik gertu. Kobazulo txikia da, sakontasun gutxiko areto bat, eguzkiaren argia bertako txoko guztietara iristen da, ura edo haizea ere bai, horren ondorioz, margoen kontserbazio egoera txarra da.


• NOMBRE: Danbolinzulo.

• CRONOLOGIA: 18.000 años.

• FRASE SIGNIFICATIVA:
Cabras y ciervos dibujados hace 18.000 años.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:
En diciembre del 2014, se halló arte rupestre en esta pequeña cueva que se encuentra en Zestoa en el monte Ertxina. Guarda imágenes de ciervos y cabras de al menos 18.000 años pintados en rojo mediante la técnica de tanponado. Pertenecen a la época conocida como Solutrense. En un principio se encontraron cinco figuras, pero a medida que avanzan las investigaciones van apareciendo más. La cueva en sí fue encontrada en 1980 por miembros de Antxieta, pero en esas primeras investigaciones no se encontró arte rupestre, aunque sí se halló cerámica prehistórica en la superficie. Los últimos años los miembros de Antxieta han tomado una nueva metodología y el descubrimiento de estas imágenes es el resultado de la aplicación de estas nuevas metodologías. Es bastante común encontrarse con la técnica de tamponado al oeste de Bizkaia y en Cantabria, no así en Gipuzkoa, pues es la primera vez que se aprecia. Las imágenes están muy dañadas por agentes externos. Tampoco es muy común que todas las imágenes sean rojas. En cuanto al material arqueológico encontrado, sólo se han encontrado restos de cerámica que podría ser de la Edad de Bronce (1.700-800 AC).

• DESCRIPCIÓN:
Se halla ubicada en la ladera del monte Ertxiña a 400 metros sobre el nivel del río Urola y cerca de la cantera de Osinbeltz. Es una cueva pequeña, con poca profundidad, el sol llega a todas las esquinas así como el agua y el viento, es por ello que la conservación de las pinturas no es la mejor.



XX

- IZENA: Erlaitz.
- KRONOLOGIA: 22.000-15.000 urte.
- ESALDI ESANGURATSUA:
Euskal Herrian gutxi ezagutzen den aro bateko labar artea: zaldiak, oreinak eta uroak.

• DATU NABARMENENAK:
2015ean Sastarrain bailaran, Ekaingo kobazuloaren inguruan, Zestoa eta Debaren arteko mugan, irudi grabatuak aurkitu ziren lehendik ikerturik zegoen kobazulo batean. Erlaitz 1978tik ezaguna zen, orduan aurkitu zuten Antxieta Kultur Elkarteko kideek, baina momentu hartan ez zen marrazkirik identifikatu. Irudiak duela 22.000 eta 15.000 urte inguruan eginak izan daitezke, Solutre aldiaren bukaera eta Madeleine aldiaren hasieran. Euskal Herrian gutxi ezagutzen den aro bateko labar artea ezagutzeko oso interesgarria izango da. Gutxienaz zortzi animalia irudi zizelatu daude, gehiago izan daitezkeen arren, zaldiak, oreinak eta uroak identifikatu dira. Grabatuak kobazuloaren goiko partean dagoen galeria baten aurkitu dira, iristeko oso zaila den leku batean. Goiko parteko areto batean marra beltzak eta kolore gorritzko pilaketak aurkitu dira, kobazuloaren beste eremu batzuetan ere antzekoak agertu daitezkeela pentsatzen da. Irudiak harrizko tresna batekin eginak dira, ziurrenik zulakaitz batekin, zabalera ertaineko trazua dute, bi edo hiru milimetrokoa. Haitzuloa bi garai desberdinetan helburu desberdinekin erabili zela dirudi, Goi Paleolitoan bizilekua izan zen, horren lekuko den harrizko eta hezurrezko industria dago. Milaka urteko utzialdiaren ondoren, Brontze Aroan lurperatze gune bat bihurtu zela dirudi, gutxienaz lau gizakiren hezurak aurkitu dira, bi heldu, haur bat eta jaiotako gabe haur batenak. Azaleko materiala jasotzean, giza hezurdurez gain, zeramikazko ontzi bat, maskorrezko apaingarri bat eta ugaztun, hegazti eta muskuiluen aztarnak aurkitu dira.

• Deskribapena:
Kobazulo txikia da, oso sarrera estua duena, Sastarrain erreka inguruko garaiera batean kokatzen da. Bere galeriak solairu desberdinetan irekitzen dira eta errepresentazioak goikoetan daude.

- NOMBRE: Erlaitz.
- CRONOLOGIA: 22.000-15.000 años.
- FRASE SIGNIFICATIVA:
Arte rupestre de una época de la que poco se conoce en el País Vasco: ciervos, caballos y uros.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:
En el 2015 en el valle de Sastarrain , cerca de la cueva de Ekain, se encontraron imágenes grabadas en una cueva que ya había sido investigada anteriormente. Erlaitz ya era conocida desde 1978, cuando la descubrieron miembros de la Asociación Cultural Antxieta, pero en aquel momento no se identificó ninguna imagen. Parece que las imágenes fueron hechas hace 22.000-15.000 años, al final del Solutrense e inicios del Magdaleniense. Es un lugar muy interesante para conocer el arte rupestre de una era de la cual se sabe muy poco en Euskal Herria. Hay por lo menos ocho imágenes cinceladas, aunque podrían ser más, se han identificado caballos, ciervos y uros. Las imágenes se han encontrado en la parte superior de la cueva, en un lugar donde es muy difícil llegar. En una sala de la parte superior se han hallado líneas rojas y acumulaciones de pintura roja, se cree que se pueden encontrar cosas parecidas en otras partes de la cueva. Las imágenes están hechas con un instrumento de piedra, seguramente con un cincel, y tienen un trazo de anchura mediana, de unos 2 o 3 milímetros. Parece ser que la cueva fue utilizada en dos épocas diferentes con dos objetivos diferentes. En el Paleolítico superior fue utilizada como vivienda, prueba de ello es la

industria encontrada en hueso y piedra. Tras miles de años de estar inhabitada, parece ser que en la Edad de Bronce se utilizó como lugar de enterramiento, se han encontrado huesos de al menos 4 individuos, dos adultos, un infante y un nato.



Al recolectar el material de la superficie, aparte de los huesos humaos, también se han encontrado un recipiente de cerámica, una concha de adorno y restos de ave y moluscos.

• DESCRIPCIÓN:

La cueva es pequeña con una entrada estrecha que se encuentra a una altura sobre el arroyo de Sastarrain. Sus galerías se abren en diferentes niveles y las representaciones se encuentran en los de arriba.

XX

• IZENA: Erraila.

• KRONOLOGIA: 16.000-10.000 urte.

• ESALDI ESANGURATSUA:

Azken izotzaroko urterik hotzenetan erabilitako koba: giza okupazioaren arrastoak, ehizatutako animaliak eta hainbat objektu.

• DATU NABARMENENAK:

Altzolaras edo Granada errearen arroaren goiko aldean kokatua, bertan Behe Madeleine aldiaren bukaeran gizakiak basahuntzak ehizatzen zituzten bertan, bitartean utzita egon zitekeen. Posible da Errailako Behe Madeleine aldiko okupazioak Ekaingo Behe Madeleine aldiko okupazioarekin lotura izatea.

1976an aurkitu zuten Antxieta Kultur Elkarteko kideek eta 1977 eta 1978an industu zen. Goiko partearen eta behekoaren artean malda handia dagoenez, sedimentu asko galdu da higaduraren ondorioz.

Behe Madeleine aldia oso garai hotza izan zen eta Errailan aurkituriko fauna horren lekuko da. Gizakiek batez ere basahuntzak ehizatzen zituzten, oreinak eta sarrioak jarraiturik, urtaro epelenetan ehiza trinkotu egiten zela dirudi eta hotzetan murriztu.

Bi aldare moduko aurkitu dira bertako hegoaldeko hormaren inguruan, ziurrenik kobazuloaren lekurik pribatuena zenean, agian Goi Paleolitoko gizakiek egiten zituzten errituaren lekuko dira. Harlauza batzuekin estalitako orein adardura bat, adarrean eginiko industria, itsas maskorrak eta ongi kristalizaturiko kareharri zati handiak aurkitu dira beraietan. Depositu bakoitzaren ondoan su zulo bana ere aurkitu zen.

Duela 15.000 urte inguruko okupazio mailan, otso batena izateko txikiak diren kanido baten aztarnak aurkitu dira, gizakiarekin batera bizi izan zen lehen zakurretako bat izan daiteke.

Itsas maskorren presentzia berezia da, elikadura balio gutxiko espezieen aztarna ugari aurkitu dira kobazuloa kostaldetik erlatiboki urrun dagoen arren (27-29 kilometrotara

garai hartan), bertako giza komunitatearen mugikortasunaren adierazgarri dira. Batzuk zulatuta eta depositu erritualetan aurkitu dira, apaingarri moduan erabili zitezkeela pentsatzen da.

Hezurrean egindako industriak ere apaindurak erakusten ditu, hala nola hagaxkek edo azagaien alakek, hezurrezko jostorrazak ere aurkitu dira.

Gizakiek kobazuloa utzi ondoren, basahuntzen gorpuzkiak aurkitu dira, baina badirudi inoiz ez zela animalia haragijaleen babesleku izan, leizeetako hartzaren aztarna bat baino ez baita aurkitu bertan.

• DESKRIBAPENA:

Ezkurroaitz mendiaren ekialdeko magalean kokatzen da, Kobalde deitzen den inguru batean, itsas mailarekiko 230 metrotara eta Altzolaras edo Granada errearen gainetik 40 metro inguruko altueran.

Bi sarreradun kobazulo txikia da, bata iparraldera eta bestea ekialdera, 18 metro inguruko luzera du eta 6 metro inguruko batz besteko zabalera, planta laukizuzena du. Galeria ia iparralde-hegoalde norabidean garatzen da eta sedimentuak malda handia erakusten du, artzainek garai berrietan eraikitako horma batzuk ere baditu.

• NOMBRE: Erraila.

• CRONOLOGIA: 16.000-10.000 años.

• FRASE SIGNIFICATIVA:

Cueva utilizada durante los años más fríos de la última glaciación: restos de ocupación humana, animales cazados y varios objetos.

• DATOS SIGNIFICATIVOS:

Ubicado en la parte alta de la cuenca del arroyo conocido como Altzolaras o Granada erreka, esta cueva fue habitada en el Magdalenense por cazadores de cabras montesas. Es posible que la ocupación del Magdalenense inferior tenga relación con la ocupación de la cueva de Ekain

Fue descubierta en 1976 por miembros de la Asociación Cultural Antxieta y las excavaciones se llevaron a cabo en 1977 y 1978. Dado que hay mucha pendiente se ha perdido gran parte de los sedimentos debido a la erosión.

El Magdalenense inferior fue una época muy fría y prueba de ello es la fauna encontrada

• **DESKRIBAPENA:**

Aire zabaleko aztarnategi bat da, Zestoako Bainuetxe Hotelaren ingurutik Lau Iturriko eremuraino gutxienaz zabaltzen dena, gutxienez 80.000 metro karratuko espazio bat okupatuz. Urolako trenaren trenbideak mozten du. Urola ibaira material bila hurbiltzen ziren giza talde ibiltarien kanpalekua izango zen. Indusketa arkeologikoak trenbidearen gaineko zatian kokaturiko bi eremutan egin dira eta lekuak negutegiak babestuta daude.

• **NOMBRE:** Irikaitz

• **CRONOLOGIA:** 300.000-25.000 años

• **FRASE SIGNIFICATIVA:**

Unos de los vestigios arqueológicos más antiguos encontrados en nuestra tierras. Era utilizado como taller por el antecedente de los neandertales, el Homo heidelbergensis.

• **DATOS SIGNIFICATIVOS:**

Es uno de los yacimientos más importantes que tenemos en el País Vasco pertenecientes al Paleolítico inferior, el único que se encuentra al aire libre y donde las piezas se encuentran en su contexto. En 1996 miembros de la Sociedad Cultural Antxieta se pusieron a mirar los trabajos que se llevaban a cabo en la construcción de unas cañerías para transportar agua en un campo de Zestoa y hallaron unos de los restos más antiguos que se han encontrado en nuestro territorio.

El Homo heidelbergensis, según las últimas investigaciones el antecesor genético de los neandertales, se acercaba a esta zona en busca de material para elaborar herramientas, un mineral llamado vulcanita. Establecían sus campamentos en llanuras cercanas al río, y lo utilizaban como taller para la elaboración de útiles, tal y como



muestran los hallazgos encontrados en el yacimiento.

En el Paleolítico superior también se acercó el ser humano a esta zona, prueba de ello un colgante de piedra que se encontró en 2011 datado en 25.000 años, en el Gravetiense. Lo que hace especial a Irikaitz es que se encuentra al aire libre y que los materiales se encuentran en su contexto original, ya que hasta ahora este tipo de materiales encontrados en terrazas de ríos al aire libre habían sido llevados a esos lugares arrastrados por el agua de los ríos y no se encontraban en su contexto.

Toda la industria encontrada es de piedra, el suelo tiene un nivel de acidez muy alto y en poco tiempo se come materiales como el hueso o cuerno, por lo cual no podemos saber por ejemplo que animales cazaban. En cambio el carbón y el polen analizados hace posible conocer la flora de la época.

• **DESCRIPCIÓN:**

Es un yacimiento al aire libre, se extiende como mínimo desde el Hotel Balneario de Zestoa hasta la zona de Lau Iturri, ocupando un espacio de más de 80.000 metros cuadrados. Sería el campamento de grupos humanos que se acercaban a orillas del río Urola en busca de material. Las excavaciones se han llevado a cabo en dos zonas que se encuentran hoy en día protegidas por invernaderos. Neolítico.

Merecen especial mención los hallazgos del Magdalenense, tanto de piedra como de hueso. Entre los hallazgos se encuentra la pieza de arte mueble conocida como “compresor de Ermittia”, una pieza un tanto larga, de superficie suave la cual contiene muchas marcas. En una cara se aprecian finas líneas grabadas formando la imagen de un caballo esquemático y parcial.

El yacimiento arqueológico se perdió en las obras de la autopista A8, así como la información valiosa que se podría haber obtenido.

Descripción:

Es un entramado de galerías de más de 17 km que se organiza en al menos tres niveles, está a unos 3 km de la costa y a 100 m de altura sobre el nivel del mar. Hoy en día no se conserva el yacimiento descubierto por Barandiaran en 1924

- **DESKRIBAPENA:**

Kareharrizko harlauza edo monolito bat da, gaur egungo Endoia auzorako errepidearen ondoan kokatua. Lur gainean 1,35 metrotako altuera du, oinean 1,75 metroko zabalera eta muturrean 0,20 metroko zabalera du, lodiera berriz, 0,30 metrokoa.

- **NOMBRE:** Monolito de Arluze.

- **CRONOLOGIA:** 3.000-1.500 años.

- **FRASE SIGNIFICATIVA:**

Se clasifica dentro de el conjunto megalítico de Izarraitz. Estos monumentos se encuentran a 600/700 metros de altura y suelen estar relacionados a tumbas de la Edad del Hierro.

- **DATOS SIGNIFICATIVOS:**

Este menhir se encuentra en el barrio de Endoia, entre Deba y Zestoa, se halla al lado de la pista que lleva al caserío de Artzabaleta. Se clasifica dentro del conjunto megalítico de Izarraitz. Los elementos de este conjunto se encuentran en altitudes de alrededor de 600/700 metros. Este tipo de monumentos suelen estar relacionados con tumbas de la Edad del Hierro.

Los megalitos son monumentos prehistóricos formados por piedras grandes, no se utiliza ningún tipo de adherente para su construcción, suelen estar compuestos de una o más piezas y a veces se ponen unas sobre otras. Los megalitos se encuentran en diversos lugares del mundo, hay de diferentes tipos y han tenido diferentes funciones, han sido lugares dedicados a rituales funerarios, pero podrían haber sido usados para delimitar fronteras, para recordar acontecimientos memorables...

En el País Vasco también hay diferentes tipos de monumentos megalíticos, así como dolmenes, menhires, los crómlechs, túmulos...

- **DESCRIPCIÓN:**

Es un monolito de piedra cáliza situado al lado de la carretera que lleva al barrio de Endoia. Tiene una altura de 1,35m y una anchura de 1,75m en el pie y 0,20m en la punta, en cambio la gordura es de 0,30m.



2018KO KOBAZ KOBIA TRAIL IRABAZLEAK GANADORES DE KOBAZ KOBIA TRAIL 2018

25km



2- Leire Baraibar
Garmendia

1- Uxoia Irigoyen
Odriozola

3- Mónica Grajera Jorba

2- Xabier Zarranz
Osinaga

1- Julen Martinez de
Estibariz Perez de
Villareal

3- Jon Ugalde Elola

17km



2- Alazne Irureta
Garate

1- Vanessa Pelaez
Martinez

3- Garazi Sanpedro
Arando

2- Ibai Makazaga
Aristi

1- Xabi Lete Biain

3- Ander De Luis
Cabezón

Antolatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak

